

1996ko URTARRILAREN 11ko URJENTZIZKO BILKURA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamaseiko urtarrilaren hamaiketan, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Inaxio Olaetxea Karrera, Ima Zubeldia Luloaga, Julian Zubeldia Aierbe, Ramon Bengoetxea Altuna eta Jose Arzadun Egiluz; Manuel Barriola Tolosa Udalkideak, arazoak izan dituela eta ez dela agertuko adierazi du; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritak, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hau tratatu delarik:

URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentziz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

GURE GARAPENAREN ZERBITZURAKO AURREZKI KUTXA BATEN ALDE

Kutxako hauteskunderen aurrean, behean sinatzen dugun Udaletxeek, gure ordezkari batzeko asmoa agertarazi nahi dugu, Gipuzkoako herri txikien interesak hobeki defendatuko dituzten kontseilari amankomun batzuk izendatzeko helburuz, instituzio honek herrialdeko biztanle guztien zerbitzura egon behar duela ikusirik.

Kutxako hauteskunde prozesuak, gabezia demokratiko larriak ditu Udaletxeen ordezkari dagokionean, Batzar Orokorrerako ordezkari lortzeko herri txikien daukaten ezintasunean zehazten delarik hau, kontseilari guztiak tamainu handiko herrien artean banatuz.

Egoera honen aurrean gelditzen zaigun aukera bakarra, elkartu eta Kutxaren aurrean, gipuzkoar guztiek eta batipat herri txikiek dituzten arazoei

irtenbidea emateko politika egitea defendatuko duten kontseilari amankomunak izendatzea izango litzateke.

Herri txikien orokorrean, azpiegitura maila bazuak, zerbitzu sozial eta kultural txarrak, eta tamainu txikikoak izatean ondoriozko bitarteko gabeziak gehituz, arazo hauek oinarritzkoak bihurtu daitezzen gertatzen da, garapena eragotziz eta biztanleen bizi kalitatearen hobekuntza ezinezko bihurtuz.

Egoera honen aurrean Kutxak, "lurro merkantilik gabeko izaera sozialdun entitate finantzieroa" izanik, oinarritzko papera jokatu behar du, herriaren interes sozial edo ekonomikodun obra eta zerbitzuetan inbertsioa bultzatuz; horretarako gure herrien garapen ekonomiko sozial eta kulturalerako beharrezko diren inbertsioei aurre egiteko, baldintza berezietako kreditu lineak emanaz.

Zihur gaude, Euskal Herriaren nazio eta sozial eraikuntzan konprometituak dauden Udaletxe txiki asko etorriko direla bat ideia hauekin, gure ekimenarekin bat egiteko gonbitea zabaltzen diegularik, Kutxak ohiko banku baten bidea utzi eta benetan herriaren zerbitzuan jarri dadin.

Kutxako hauteskunderen aurrean, behean sinatzen dugun Udaletxeek, gure ordezkari batzeko asmoa agertazi nahi dugu.

Amezketako Udala, Anoetako Udala, Lezoko Udala, Lizartzako Udala, Oiartzungo Udala, Usurbilgo Udala eta Zaldibiako Udala.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du,